

ETXEKOAK EZ DIREN ERABILTZAILEEI EMANDAKO SANEAMENDU-ZERBITZUAGATIKO IZAERA PUBLIKO EZ- TRIBUTARIOKO ONDARE-PRESTAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako ordenantza arautzaile osoa jasotzen da bertan.

1. artikulua. Foru-araudia

Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduan (Saneamendu Erregelamendua, aurrerantzean) etxeakoak ez diren erabiltzaileentzat aurreikusitako saneamendu-zerbitzua emateagatiko kontraprestazio ekonomikoa Ordenantza honek arautzen eta eskatzen du, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren (11/1989 FA aurrerantzean) 20.4 artikuluan (2019. urterako zerga-neurriak onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauan emandako idazketaren arabera) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren Lehen Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraikiz (foru-arau horiek Ordenantza honetan araututakoak bezalako izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestazioak –kontraprestazioak aurrerantzean– arautzen dituzte).

lido horretan, 11/1989 Foru Arauaren 20. artikuluko 4. atalak honako hau ezartzen du:

“Artikulu honetako 3. atalean aipatutako zerbitzu publikoen prestazioagatik era hertsagarrian ezarri eta jasotzen diren kontraprestazio ekonomikoak izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestaziotzat hartuko dira Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, prestazio horren kudeaketa zuzenekoa izan –pertonifikazio pribatu bidez– zein zeharkakoa izan.

Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida-erregimenean egiten diren obren ustiapenagatik edo zerbitzuen prestazioagatik exijigarriak direnak, ekonomia mistoko sozietateen, entitate publiko enpresarialen, kapital publiko soileko sozietateen eta zuzenbide pribatuko bestelako formulen bitartez egiten direnean.

Añarbeko Uren Mankomunitateak Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAREN (AUSA, aurrerantzean) bitartez kudeatu, likidatu eta bilduko ditu adierazitako prestazioak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

2. artikulua. Xedea eta izaera

Ordenantza honen xedea honako hauek arautzea da:

1. Saneamendu Erregelamenduaren arabera Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udal Mankomunitatearen (Mankomunitatea, aurrerantzean) eremuko (hau da, Donostia, Errenteria, Hernani, Pasaia, Lasarte-Oria, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Lezo eta Astigarragako udal-mugarteetako) etxeakoak ez diren erabiltzaile berezizat hartzen diren erabiltzaileen hondakin-urak eta euri-urak bildu, garraiatu, araztu eta ingurune hidrikora isurtzeko saneamendu-zerbitzua emateagatiko kontraprestazio ekonomikoak.

Prestazio horren barruan, hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzeko parametroak isurketa-baimenaren baldintzetara egokituko dira, erabiltzaile horiek isuritako hondakin-uren bolumenak eta izaera zaindu, ikuskatu, kontrolatu eta neurtzearen bidez.

Zerbitzuaren prestazioaren barruan, halaber, altako saneamendu-sare publikoaren eta Mankomunitatearen titulartasuneko hondakin-urak araztu eta isurtzeko azpiegituren egoera ona ziurtatuko da (adierazitako azpiegituren ustiapena eta mantentzea eta, beharrezkoa denean, haien konponketa, handitzea eta hobekuntza barnean hartuta).

Etxekoak ez diren erabiltzaile berezi jakin batzuei jasotako hondakin-urak eta euri-urak Mankomunitatearen titulartasuneko arazketa-azpiegiturretara eramaten ez diren kasuan, Mankomunitateak ez ditu araztu beharko, eta erabiltzaile horiei emandako saneamendu-zerbitzua ur horiek bildu, garraiatu eta ingurune hidrikora isurtzera mugatuko da. Erabiltzaile horiei "arazketarik gabeko etxeakoak ez diren erabiltzaile berezi" deituko zaie.

Kasu horietan, hondakin-uren arazketa erabiltzaileek berek egingo dute beren instalazioetan, beren erantzukizunpean, betiere araztutako hondakin-urak ingurune hidrikora isuri ahal izateko ingurumen-agintaritza eskudunak kasu bakoitzean ezartzen dituen baldintzetan. Horren ondorioz, hondakin-urak bildu, garraiatu eta ingurune hidrikora isurtzeko zerbitzuari lotutako alderdiak egiaztatzea izango da Mankomunitatearen jardura bakarra kasu horietan.

Atal honen barnean hartutako zerbitzua Añarbeko Uren Mankomunitateak emango du AUSAren bitartez.

2. Añarbeko Uren Mankomunitateak honako baimen hauen eskaerak izapidetzeko egindako jardura tekniko eta administratiboaren ondoriozko kontraprestazioak:
 - 2.1. Mankomunitatearen saneamendu-sare publikorako hargunea lortzeko baimenak, Saneamendu Erregelamenduaren 11. artikuluan aurreikusitakoak. Añarbeko Uren Mankomunitatearen jardueraren helburuak honako hauek dira: baimen horiek emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren ala ez ezartzea; baimenak ematen diren kasuetan sare publikoarekiko konexioen puntuak eta ezaugarri teknikoak ezartzea; eta konexio-lanak dagokion baimenean ezarritako baldintzetan egin direla egiaztatzea.
 - 2.2. Etxekoez edo ur beltzez bestelako industriako hondakin-urak (Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduaren 4. artikuluan zehaztuak) isurtzen dituzten etxeakoak ez diren erabiltzaile bereziek eta etxeakoak ez diren erabiltzaile arruntek saneamendu-sare publikora isurtzeko egindako eskaerak, Saneamendu Erregelamenduaren 12. artikuluan aurreikusitakoak,

betiere hondakin-ur horiek etxekoekin parekatzeko modukotzat hartzen badira. Jarduera horren helburua honako hau da: baimen horiek emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren ala ez ezartzea, adierazitako erabiltzaileen hondakin-uren isurketen ezaugarriak zehaztea (emaria, bolumena eta karga kutsatzailea barnean hartuta) eta saneamendu-eroanbideez zein hondakin-urak araztu eta isurtzeko azpiegiturez osatutako saneamendu-sare publikoan duten onargarritasuna egiaztatzea.

Erabiltzaileek aurreko letretan adierazitako baimenak eskatzeko kasuak, eskaera horiek bete beharreko betekizunak eta eskaera horiek izapidetzeko prozedurak Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Erregelamenduan eta, hala badagokio, hori garatzeko ematen diren gainerako xedapenetan araututa daude.

Añarbeko Uren Mankomunitateak AUSAren bitartez izapidetu eta kudeatuko ditu adierazitako eskaerak.

3. artikulua. Sortzapena

Aurreko artikulua 1. atalean jasotako kontraprestazioei dagokienez, zerbitzua ematen den aldi berean sortzen dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera.

Aurreko artikulua 2. atalean jasotakoak, berriz, bertan adierazitako baimenen eskaerak aurkezten diren egunean sortzen dira.

4. artikulua. Ordaintzeko betebeharra

Ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen den unean bertan sortzen da, eta nahitaezkoa da zerbitzua hartzea.

Honako kasu hauetan ulertuko da zerbitzua ematen dela:

- Ordenantza honen 2. artikulua 1. atalean jasotako zerbitzuaren kasuan, zerbitzua ematen den aldi berean.
- Ordenantza honen 2. artikulua 2. atalean deskribatutako zerbitzuaren kasuan, baimenen eskaerak aurkezten diren egunean edota, hargunea eraikita badago, Mankomunitateko zerbitzuek bidezko ikuskapena egiten dutenean.

5. artikulua. Ordaintzeko betebeharra dutenak

Ordenantza honen 2. artikulua 1. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, jardueren titularrak diren eta etxekoak ez diren erabiltzaile berezitat hartuta dauden pertsona fisiko eta juridikoek izango dute ordaintzeko betebeharra, arazketa-zerbitzua ematen zaien ala ez kontuan hartu gabe.

Ondorio horietarako, edozein jarduera ekonomiko edo produkzio-jarduera egiteko erabilitako lokaletan sortutako hondakin-urak isurtzen dituena hartzen da etxekoa ez den erabiltzailetzat. Ere berean, etxeko isurketa batekin parekatzeko moduko ur beltzez edo industriako hondakin-urez gain etxekoekin parekatu ezin diren industriako hondakin-urak

isurtzen dituen etxekoa ez den erabiltzailea hartzen da etxekoa ez den erabiltzaile berezizat. Nolanahi ere, honako baldintza hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenak hartuko dira etxekoak ez diren erabiltzaile berezizat:

- Hainbat hornidura-iturritako (hala nola ur kontinentaletako edo itsasertzeko kaptazioak, putzuak, iturburuak, idoiak, iturbegiak edo edateko uraren sare publikoaz bestelako edozein jatorri) hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzea.
- Urtean 100.000 m³-ko edo hortik gorako hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzea.
- Bereziki arriskutsuak diren edota ingurumenean o arazketa-prozesuen bideragarritasunean eta errendimenduan eragin berezia duten substantziak dituzten hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzea. Ondorio horietarako, honako substantzia hauek hartuko dira halakotzat:

Kjeldahl nitrogeno totala (KNT)	Kloruroak (Cl ⁻)	Kromo totala (Cr)
Fosforo totala (P)	Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	Merkurioa (Hg)
Olioak eta koipeak (OK)	Kobrea (Cu)	Zinka (Zn)
		Kadmioa (Cd)
		Fenolak

Ordenantza honen 2. artikulua 2. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, jardueren titularrak diren, etxekoak ez diren erabiltzaile gisa edo etxekoak ez diren erabiltzaile arrunt gisa kalifikatuta dauden eta atal horretan jasotako baimenak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute ordaintzeko betebeharra.

6. artikulua. Kuotaren oinarria

Ordenantza honen 2. artikulua 1. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, kuota kalkulatzeko tarifen oinarria etxekoak ez diren erabiltzaile bereziek saneamendu-sare publikora isuritako hondakin-uren bolumena (Añarbeko zerbitzu teknikoek hondakin-urak kontrolatzeko estazioan neurtua) eta instalatutako emaria edo hondakin-urak husteko dagoen ahalmena izango da.

Ordenantza honen 2. artikulua 2. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, horretarako indarrean dagoen tarifa izango da kuota.

7. artikulua. Tarifak eta kuotak

Aplikatu beharreko tarifak 1. eranskinean agertzen direnak dira, eta aurreko artikuluan deskribatutako oinarrietan aplikatzearen emaitza izango da bidezko kuota.

Ordenantza honen 2. artikulua 1. atalean zehaztutako zerbitzuari dagokionez, erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota bi kontzepturen batura izango da, honako adierazpen honen arabera:

$$\text{Gutzizko kuota} = T_{(\text{Spd}+\text{V})} + T_D$$

Non:

$T_{(\text{Spd}+\text{V})}$ Saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren kuota da. Saneamendu-sarera isuritako hondakin-urak bildu, hustu, garraiatu eta ingurune hidrikora isurtzeko zerbitzua hartzen du barnean, eta termino finko batez eta termino aldakor batez osatuta dago, honako adierazpen honi jarraikiz:

$$T_{(\text{Spd}+\text{V})} = Q_i \times TF_{(\text{Spd}+\text{V})} + V \times TV_{(\text{Spd}+\text{V})}$$

Non:

Q_i erabiltzaile bakoitzak edo instalatutako emari bakoitzak hondakin-urak husteko duen ahalmena, AUSAk finkatua, dagokion erabiltzailearentzat aurreikusitako batez besteko isurketa-emariaren arabera. Izaera iraunkorra du (isuritako batez besteko emariak aldatzen direnean izan ezik), eta unitate bateko balioa izango du gutxienez.

$TF_{(\text{Spd}+\text{V})}$ saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren tarifa finkoa, €/l/s-tan adierazia

V etxekoa ez den erabiltzaile bereziak isuritako hondakin-uren bolumena, m³-tan adierazia

$TV_{(\text{Spd}+\text{V})}$ saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren tarifa aldakorra da, €/m³-tan adierazia

Tarifa aldakor hori berdina da Mankomunitateko erabiltzaile guztientzat, Mankomunitateari zuzenean ordaintzen duten (etxekoak ez diren erabiltzaile berezien kasuan, adibidez) edota udalen bitartez ordaintzen duten kontuan hartu gabe.

T_D Arazketaren kuota da. Hondakin-urak Loiolako hondakin-uren araztegiaren arazteko zerbitzua hartzen du barnean, eta termino finko batez eta termino aldakor batez osatuta dago, honako adierazpen honen arabera:

$$T_D = Q_i \times TF_D + V \times TV_D$$

Non:

TF_D arazketaren tarifa finkoa da, €/l/s-tan adierazia

TV_D arazketaren tarifa aldakorra da, €/m³-tan adierazia

Etxekoak ez diren erabiltzaile berezien kasuan, tarifa aldakorra honako adierazpen honen arabera izango da:

$$TV_D = CCC_{\text{Fiskala}} \times TV_{\text{DN}}$$

Non:

$CCC_{\text{Fiskala}} = CCC_{\text{Teknikoa}}$ [0tik 1era bitarteko CCC_{Teknikoa}]

$CCC_{Fiskala} = 0,65 \times CCC_{Teknikoa}$ [1etik gorako eta 4,38ko edo hortik beherako $CCC_{Teknikoa}$ (gehieneko $CCC_{Tekniko}$ teorikoa)]

$CCC_{Fiskala} = 0,90 \times CCC_{Teknikoa}$ [4,38tik gorako eta 8,76ko edo hortik beherako $CCC_{Teknikoa}$ (4,38ren bikoitza)]

$CCC_{Fiskala} = 1,00 \times CCC_{Teknikoa}$ [8,76tik gorako $CCC_{Teknikoa}$]

$CCC_{Teknikoa}$ -ren balioak unitatearen berdinak edo handiagoak direnean, $CCC_{Fiskala}$ ez da izango unitatea baino txikiagoa.

$CCC_{Teknikoa}$ karga kutsatzailearen koefizientea da (dimentsiorik gabea)

$CCC_{Teknikoa}$ karga kutsatzailearen koefizientea honako adierazpen honen arabera kalkulatzen da etxekoa ez den erabiltzaile berezi bakoitzarentzat:

$$CCC_{Teknikoa} = 0,65 \times \frac{[SST] - 50}{170} + 0,25 \times \frac{[DBO_5] - 60}{140} + 0,10 \times \frac{[DQO] - 120}{280} + K$$

Non:

- [SST]** guztizko solido esekiek isurketan duten kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia
- [DBO₅]** 5 eguneko oxigeno-eskari biologikoak isurketan duen kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia
- [DQO]** oxigeno-eskari kimikoak isurketan duen kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia
- K** isurketak honako substantzia hauetakoren bat duenean aplikatu beharreko koefizientea da:

- Kjeldahl nitrogeno totala (KNT)
- Fosforo totala (P)
- Olioak eta koipeak (OK)
- Kloruroak (Cl)
- Sulfatoak (SO₄⁻)
- Kobrea (Cu)
- Kromo totala (Cr)
- Merkurioa (Hg)
- Zinka (Zn)
- Kadmioa (Cd)
- Fenolak

K koefizienteak (dimentsiorik gabeak) honako balio hauek hartuko ditu:

Parametroa	Isurketaren kontzentrazioaren ehuneko onartutako gehienekoarekiko, parametro bakoitzean	K
Kjeldahl nitrogenu totala (KNT)	<% 80	0,00
Fosforo totala (P)	% 80-85	0,05
Olioak eta koipeak (OK)	% 85-90	0,10
Kloruroak (Cl ⁻)	% 90-95	0,15
Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	% 95-100	0,20
Kobrea (Cu)	<% 50	0,00
Kromo totala (Cr)	% 50-60	0,10
Merkurioa (Hg)	% 60-70	0,20
Zinka (Zn)	% 70-80	0,30
Kadmioa (Cd)	% 80-90	0,40
Fenolak	% 90-100	0,50

Substantzia horietako bat baino gehiago isuriz gero, K faktorea substantzia bakoitzerako bereiz kalkulaturako K₁, K₂, K₃, ... guztien batura izango da.

Parametro bakoitzerako onartutako gehieneko balioak honako hauek dira:

Parametroa	Kontzentrazioa (mg/l)
Kjeldahl nitrogenu totala (KNT)	100
Fosforo totala (P)	15
Olioak eta koipeak (OK)	100
Kloruroak (Cl ⁻)	1.500
Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	1.000
Kobrea (Cu)	1
Kromo totala (Cr)	4
Merkurioa (Hg)	0,05
Zinka (Zn)	4
Kadmioa (Cd)	0,2
Fenolak	2

Parametroren baterako ezarritako mugako baliotik gorako isurketa-baimen baten salbuespenezko kasuan, Kren balioa isurketa-baimenean ezarriko da, eta, kasu horretan, CCC_{Teknikoa} ez da unitatea baino txikiagoa izango.

TV_{DN} Arazketa "normalaren" tarifa aldakorra da, €/m³-tan adierazia

Hondakin-ur "normalen" (hots, etxeko hondakin-uren edo etxekoekin pareka daitezkeen hondakin-uren) arazketa-kostua da; hondakin-ur horien kontzentrazioak honako hauek dira: GSE (SST): 220 mg/l; OEB₅ (DBO₅): 200 mg/l; eta OEK (DQO): 400 mg/l. Tarifa Añarbeko Mankomunitatearen Batzarrak finkatzen du bere tarifak onartzen dituenean, eta Ordenantza honen 1. eranskinean jasota dago.

Hondakin-ur "normal" batek (220 mg/l-ko GSEko –SST–, 200 mg/l-ko OEB₅eko –DBO₅– eta

400 mg/l-ko OEK-ko –DQO– kontzentrazioak dituen etxeko hondakin-ur batek edo etxekoarekin pareka daitekeen batek) 1eko balioa duen CCC_{Teknikoa} izango du. Adierazitakoak baino kontzentrazio txikiagoak dituzten hondakin-urek unitatetik beherako CCC_{Teknikoa} izan dezakete, eta, beraz, etxeko hondakin-urena baino tarifa txikiagoa aplikatuko da. Hondakin-uren araztegiko irteerako efluentearenaren berdinak diren kontzentrazioetan (GSE –SST–: 50 mg/l; OEB5 –DBO5–: 60 mg/l; OEK –DQO–: 120 mg/l), CCC_{Teknikoa} 0 izango da (nolanahi ere, ez da kontuan hartuko CCC_{Teknikoa} koefizientearen balio negatiborik), eta, kasu horretan, hondakin-emari horiek hondakin-uren araztegiaren barrualdetik ponpatzeko eta garraiatzeko kostu soilari dagokion tarifa bat aplikatuko da.

Artikulu honetan aurreikusitakoaren salbuespen gisa, etxekoak ez diren eta beren hondakin- eta euri-urak Mankomunitatearen titulartasuneko arazketa-azpiegituretara eramaten ez dituzten erabiltzaile bereziek (hots, arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaile bereziek) ordaindu beharreko kuotak kontzeptu bakarra bilduko du, honako adierazpen honen arabera:

$$\text{Kuota} = \text{TSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$$

Non:

TSD_(Spd+V) Arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaile berezi horiei dagokien saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren kuota da (erabiltzaile horien urak ez dira Mankomunitatearen titulartasuneko arazketa-azpiegituretan arazten). Saneamendu-sarera isuritako hondakin-urak bildu, garraiatu eta ingurune hidrikora isurtzeko zerbitzua hartzen du barnean, eta termino aldakor bakar batez osatuta dago, honako adierazpen honi jarraikiz:

$$\text{TSD}_{(\text{Spd}+\text{V})} = \text{V} \times \text{TVSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$$

Non:

V etxekoa ez den erabiltzaile bereziak isuritako hondakin-uren bolumena, m³-tan adierazia

TVSD_(Spd+V) “arazketarik gabeko” erabiltzaile horiei (erabiltzaile horien urak ez dira arazketa-azpiegituretan arazten) dagokien saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren tarifa aldakorra da, €/m³-tan adierazia.

Ordenantza honen 2. artikuluan 2. atalean zehaztutako zerbitzuari dagokionez, eskaera bakoitzerako kuotak behin baino ez dira eskatuko, eta zenbateko finko bat izango dute.

Salbuespen gisa, Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketen Erregelamenduaren 9.5 artikuluan arabera haren 1 Eranskinean jasotzen ez den substantzia baten isurketa baimenduko balitz, likidazio-aldian aplikatuko zaion CCC_{teknikoa} ezingo da izan unitatea baino baxuagoa izan.

Artikulu honetan adierazitako eta Ordenantza honen 1. eranskinean jasotako tarifa guztiak Mankomunitatearen Batzarrak finkatzen ditu.

8. artikulua. Kuotaren kenkariak

Ordenantza honen 2. artikuluan 1. atalean zehaztutako zerbitzuari dagokionez, eta jatorria dagokion Udalak emandako edateko uretan duten hondakin-uren bolumenen gaineko ezarpen bikoitza saihesteko, etxekoa ez den erabiltzaile bereziak bere Udalari saneamenduaren eta arazketaren kontzeptupean ordaindutako zenbatekoen zatia

kenduko du Añarbek kuotatik, Mankomunitateak Udalari bolumen eta kontzeptu horiek fakturatu dizkionean.

Beraz, kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko, erabiltzaileak Udalari erositako hornidura-sare publikoko edateko uraren bolumena (jakina, bildutako eta AUSAk erabiltzaileari fakturatutako bolumenaren gehieneko mugarekin) saneamenduaren eta arazketaren tarifa aldakorrarekin biderkatuko da; nolana ere, arazketaren kasuan, AUSAk etxekoa ez den erabiltzaile bereziari fakturatutako karga kutsatzailearen koefizientea eta, nolana ere, bat izango den karga kutsatzailearen gehieneko koefiziente bat hartuko dira kontuan.

9. artikulua. Likidazioaldia eta kuotak ordaintzeko modua

Ordenantza honen 2. artikulua 1. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei emandako saneamendu-zerbitzuari dagokion likidazioaldia urte naturala izango da, zerbitzua hasten edo eteten denean izan ezik; kasu horretan, likidazioaldia zirkunstantzia horretara egokituko da.

Likidazioaldia urte naturala izanik ere, etxekoak ez diren erabiltzaile bereziek hiru hilean behin ordainduko diote AUSAri, faktura egin eta bidali ondoren.

AUSAk bidezko faktura egingo du, eta amaitutako hiruhilekoari dagokion kuota kalkulatzeko, hiruhileko horretan bildutako bolumenak (etxekoa ez den erabiltzaile bereziaren hondakin-uren kontrol-estazioan instalatutako emari-neurgailuaren edo beste neurgailu baten bidez neurtuak) erabiliko ditu.

Karga kutsatzailearen koefizientea (CCC_{Teknikoa}) kalkulatzeko beharrezkoak diren guztizko solido esekien, 5 eguneko oxigeno-eskari biologikoaren eta oxigeno-eskari kimikoaren kontzentrazioaren zenbateko gisa (mg/l-tan) eta, aldizka, K koefizientearen balio gisa, fakturatzen denaren aurreko hiruhilekoan egindako analitikan lortu diren parametro horien emaitza analitikoaren batezbestekoak erabiliko dira.

Kuota zehatz-mehatz finkatzeko beharrezkoak diren datuak erabili ezin direnean, honako baliabide hauetako edozein (edo batzuk aldi berean) aplikatuko da datu horiek finkatzeko:

- Eskuragarri dauden eta horretarako garrantzitsuak diren datuak eta aurrekariak aplikatzea.
- Dagokion sektore ekonomikoan normalak diren datuak zeharka egiaztatuko dituzten elementuak erabiltzea, konparatu beharreko produkzio-unitateen dimentsioak kontuan hartuta.
- Zergapekoei lotutako magnitudeak, indizeak, moduluak edo datuak baloratzea, antzeko kasuen edo baliokideen datuen edo aurrekarien arabera.

Etxekoa ez den erabiltzaile bereziak bere Udalak emandako edateko uren saneamenduagatik Udal horri ordaindutako zenbatekoak kentzeko, erabiltzaileak AUSAren fakturatik kendu beharreko zenbatekoak egiaztatuko ditu AUSAren aurrean, Udalaren ordainagiriaren edo fakturen fotokopiak aurkeztearen bidez.

Etxekoak ez diren erabiltzaileei dagozkien fakturretan, gainera, erabiltzaile horiek

saneamendu-zerbitzuagatik ordaindutako eta haiek soilik erabili dituzten azpiegiturak finantzatzera bideratutako aurrerakinak kenduko dira. Faktura bakoitzean kendu beharreko aurrerakinen zenbatekoa erabiltzaile horiek soilik erabili dituzten (eta haiek finantzatu dituzten) azpiegituren amortizazio teknikoaren zenbateko bera izango da.

Saneamendu-zerbitzua hasten edo eteten den kasuetan, prestazioaren termino finkoei dagozkien hiruhilekoko kuotak honela hainbanatuko dira:

- Hasieraren kasuan: hasiera-datatik dagokion hiruhileko naturala amaitu arte igarotako egunen arabera.
- Etetearen kasuan: dagokion hiruhileko naturalaren lehen egunetik etetearen egunera arte igarotako egunen arabera.

AUSAk egiten duen eta saneamendu-prestazioa biltzen duen faktura hilabeteko epean ordainduko da, egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bestalde, eta Ordenantza honen 2. artikulua 2. atalean deskribatutako zerbitzuari dagokionez, kuotak AUSAri ordaindu behar diotenean ordainduko dituzte, bidezko fakturak egin eta entregatu ondoren.

Kasu horretan, aurkeztutako baimen-eskaerei buruzko ebazpenak eman eta entregatu aurretik ordainduko dira AUSAk egindako fakturak.

10. artikulua. Aplikazio orokorreko arauak

Ordenantza honen xede diren kontraprestazioei Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta toki-araubidearen arloan bat datorren gainerako legerian aurreikusitako xedapenak aplikatuko zaizkie.

Xedapen gehigarria

Ordenantza hau aplikatu eta interpretatzeko, Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu Erregelamenduaren aginduak hartu beharko dira kontuan.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzean, indargabetuta geratuko dira bai etxeokak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala, bai hargune-baimenak eta isurketa-baimenak izapidetzeagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta haren 1. eranskina 2020ko urtarrilaren 1ean edota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (data hori geroagokoa bada) jarriko dira indarrean, eta egun horretan hasiko dira ondorioak izaten. Ordenantzak eta haren 1. eranskinak indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

1. ERANSKINA

Etxekoak ez diren erabiltzaileei emandako saneamendu-zerbitzuagatiko izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestazioa arautzen duen Ordenantzan jasotako tarifen balioak (BEZa sartu gabe)

2.1 artikuluan deskribatutako zerbitzua:

1. Saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren tarifa finkoa ($TF_{(Spd+V)}$)

Balioa honela geratu da ezarrita:

$$TF_{(Spd+V)} = 316,7419 \text{ €/l/s urteko}$$

2. Saneamenduaren (zentzu hertsian) eta isurketaren tarifa aldakorra ($TV_{(Spd+V)}$)

Balioa honela geratu da ezarrita:

$$TV_{(Spd+V)} = 16,1452 \text{ zent. €/m}^3$$

3. Etxekoak ez diren eta beren urak Añarbeko Mankomunitatearen arazketa-azpiegituretara eramaten ez dituzten erabiltzaileei edo "arazketarik gabeko" erabiltzaileei saneamenduagatik (zentzu hertsian) eta isurketagatik dagokien tarifa aldakorra ($TVSD_{(Spd+V)}$)

Balioa honela geratu da ezarrita:

$$TVSD_{(Spd+V)} = 7,7371 \text{ zent. €/m}^3$$

4. Arazketaren tarifa finkoa (TF_D)

Balioa honela geratu da ezarrita:

$$TF_D = 393,5343 \text{ €/l/s urteko}$$

5. Arazketa normaleko tarifa aldakorra

Balioa honela geratu da ezarrita:

$$TV_{DN} = 12,5067 \text{ zent. €/m}^3$$

CCC_{Teknikoa} zero edo txikiagoa bada, TV_D -a **1,83 euro-zentimo/m³** izango da.

2.2 artikuluan deskribatutako zerbitzua:

6. Hargune-baimenak izapidetzeagatiko tarifa

Balioa honela geratu da ezarrita: **420,53 euro eskaera bakoitzeko**

7. Isurketa-baimenak izapidetzeagatiko tarifa

Balioa honela geratu da ezarrita: **210,84 euro eskaera bakoitzeko**